



Udazkeneko Txapelketa 2023-2024

Eskubaloia

Lekua: Unibetsitateko Kiroldedia kantxa- Ctra. de Leioa a Unbe nº 6 – 48950 Erandio (Bizkaia)

TXAPELKETAKO ARAUAK

1. Taldeek **garaiz** iritsi behar dute instalazioetara. Denek batera sartu behar dute instalazioetara, gutxienez partida hasi baino **10 minutu** lehenago.
Partidak hasteko ordua ezingo da 10 minutu baino gehiago atzeratu. Denbora tarte hori igaro ondoren, aurkeztu ez den taldeari galdutzat emango zaio partida. Debeekatuta dago erretzea eta edari alkoholdunak eramatea.
Partida bat hasteko, taldeek **8 jokalaria izan beharko dituzte gutxienez (7 jokalaria eta atezain bat), eta gehienez 12.**
2. Instalaziora iristean **derrigorrezkoa da arbitro taldeari NANA eta egiaztagiria edo unibertsitateko txartela aurkeztea.** Aurkezten ez dituztenek EZINGO DUTE TXAPELKETAKO EGUNETAN JOKATU.
3. **Jantzia:** Atezainen kamiseta bi taldeek daramatena ez bezalakoa izango da. Arbitroen lana errazteko, taldeek eraman behar izango dituzte 2 kamiseta, bat argia eta beste bat iluna.
4. **DERRIGORREZKOA DA** talde bakoitzak bere baloia eramatea, berotzeko, eta beharrezkoa balitz, partida jokatzeko.
5. **Partidaren iraupena: Multzoka Fasea:** Multzo bakoitzean liga bat jokatu da 20 minutuko denbora 1, multzo bakoitzeko **lehenengoa sailkatuko da**, eta geroago **txapeldunen arteko liga bat** jokatu da partiduak 20 minutuko denbora 1. **Bi talde baldin badaude, 40 minutukoak (20 minutuko 2 denbora). Denborak aldatu daitezke talde kopuruaren arabera.**
Arauzko denbora amaitzean markagailuak berdinketa markatzen badu, 5 penalti jaurtiko dira txandaka. Berdinketa ez bada hausten, txandaka penaltiak jaurtitzen jarraituko dute, berdinketa hautsi arte.
6. **Arbitroa partidara ez agertzea** ez da aitzakia izango partida ez jokatzeko. Ordezkariak ados jarriko dira arbitratzeko, eta emaitza balioduna izango da sailkapenerako. Gainera, partida amaitu eta 24 orduko epean partidara bertaratutako izen-abizenak, NANA eta partidaren emaitza idatzi beharko dira orri batean eta Kirol Zerbitzuari bidali (**bi-kirolak@ehu.eus** helbide elektronikora edo eskura). Orri hori berandu bidaltzen bada, arrazoirik gabe, partida galdutzat emango da bi taldeentzat.
7. Gogorazten da jokalariek ezin dutela aldi berean bi talderekin edo gehiagorekin jokatu. Jokalari bat bi aldiz agertzen bada jokalarien zerrendan (jokalari zerrenda okerra), galdutzat emango zaio partida araua hautsi duen taldeari, puntuak kenduko zaizkio eta baliteke araua hautsi duen jokalaria txapelketatik kanporatzea.
8. Talde bat ez bada partida batera agertzen, galdutzat emango zaio partida, 6-0 emaitzarekin, eta, horrez gain, puntuak eta kredituak galduko ditu (Lehiaketa Batzordeak berretsiko du zehapena). Bigarren aldiz berdin gertatuz gero, taldea txapelketatik kanpo geldituko da.
9. **Kredituak aitortzeko eskaera:** banan-banan egingo da. Hauxe da esteka: <https://cutt.ly/4KXcyxE> Unibertsitateko Txapelketak guztiak bukatuta,
10. **OSO GARRANTZITSUA:** partida amaitzean, talde bakoitzeko kapitainak edo ordezkariak partida bakoitzaren akta berrikusi eta sinatu behar du derrigor, **emaitza eta jokalarien zerrenda egiaztatu ahal izateko.** Idatzi horren aurka alegazioa aurkeztu ahal izango da, idatziz. Partida amaitu eta 20 minutura gertatzen den edozer ez da aintzat hartuko.

11. Lehiaketa Antolatzeko eta Kontrolatzeko Batzordeak eskubidea izango du zehapenak ezartzeko, norbaitek kirol instalazioetan kirolari ez dagokion jarrera eta gizalegezkoa ez den jarrera desegokia izanez gero.

ANTOLAKUNTZAK ESKUBIDEA DU TXAPELKETAN ZEHAR ARAUAK ALDATZEKO, BERTAN SORTZEN DIREN EGOERETARA EGOKITUZ.

PARTE HARTZAILEEK, IZENA EMATEAN, ARAU HAUEK ONARTZEN DITUZTE ETA BEHARTUTA DAUDE ARAUOK BETETZERA.

BIZKAIKO CAMPUSA
CAMPUS DE BIZKAIA
Polideportivo Universitario
48940 Leioa (Bizkaia)